

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

254/2020 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa, diputatu nagusiarena, 2020ko deialdi publikoa onesten duena dirulaguntzak irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei, kirol federazioei, kirol federazioen elkartei eta ikasleen gurasoen elkartei eta haien federazioei emateko, euskararen bitartez sozializatzeko programak gara ditzaten

Diputatu Nagusiaren Sailak proposatu du irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateei, kirol federazioei, kirol federazioen elkartei eta ikasleen gurasoen elkartei eta haien federazioei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa egitea, 2020ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak gara ditzaten.

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Dirulaguntzen deialdi publikoa onestea irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitate, kirol federazio, kirol federazioen elkarte eta ikasleen guraso elkarte eta haien federazioentzat, 2020ko ekitaldian euskara bitartez sozializatzeko programak egin ditzaten. Deialdia foru dekretu honi erantsita doa eranskin gisa, gehieneko dotazioa 101.500 eurokoa izango da eta Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak arautuko du (ALHAO, 84. zk., 2020ko uztailaren 27 koa), zeinaren bidez onetsi baitziren Diputatu Nagusiaren Sailak norgehiagoka bidez emango dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak.

Bigarrena. Dekretu honen bidez araututako dirulaguntzak, 101.500 euroko zenbatekoarekin, Arabako Foru Aldundiaren 2020rako indarreko aurrekontu antolamenduko 02.4.01 78.00.4.8.1.00.04.3 partidaren kontura ordainduko dira (xedapen erreferentzia 105.2770).

Hirugarrena. Organo eskudunak emango du, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, eman beharreko ebazpena, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko diputatu nagusiari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, dagokion administrazioarekiko auzietarako epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei banan-banan, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan arautzen duenarekin.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria -Gasteiz, 2020 abuztuaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA

ERANSKINA

Dirulaguntza deialdia kultura elkarteek, kirol federazioek, kirol federazioen elkarteek, ikasleen guraso elkarteek eta ikasleen guraso elkarten federazioek euskararen bitartez sozializatzeko programak gara ditzaten 2020an

Lehenengoa. Xedea eta helburua

Deialdiaren helburua da norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea kultura elkarteei, kirol federazioei eta kirol federazioen elkarteei, ikasleen guraso elkarteei eta ikasleen guraso elkarten federazioei, 2020ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak antolatu, garatu eta gauzatu ditzaten, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak xedatutakoaren eremuan, zeinaren bidez onetsi baitziren Diputatu Nagusiaren Sailak norgehiagoka bidez emango dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak.

Sozializaziotzat joko da pertsonen arteko interakzioa, beti ere hizkuntza komunikazio bitarteko izanik. Beraz, laguntza hauen helburu nagusia da gizarte programa eta jardueri laguntzak ematea, honetarako: Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Enklabean euskal hiztunak eta horien sareak aktibatuzko, eta lurraldean euskaraz bizitzeko baldintzak eman daitezen aukerak sortzen jarraituzko, Araban Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan (2019-2022) jasotzen denari jarraituz.

Bigarrena. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen zenbateko osoak ezingo du inola ere gainditu helburu horretarako jarri den zenbatekoa, hau da, 101.500,00 euro. Arabako Foru Aldundiaren 2020ko aurrekontuko "Euskararen bitartez sozializatzeko programa. Irabazteko xederik gabeko erakunde eta elkarteak" izeneko 02.4.01 78.00.4.8.1.00.04.3 partidaren konturakoa da zenbateko hori.

Dagoen zenbatekoa honela banatuko da:

a) Ehuneko 50 irabazteko xederik gabeko kultura elkarte eta entitate publiko nahiz pribatuei bideratuko zaie, Araban edo Trebiñuko Enklabean badute egoitza soziala; federazioetan elkartuta ere aurkez daitezke.

b) Ehuneko 20 irabazteko xederik gabeko kultura elkarte eta entitate publiko nahiz pribatuei bideratuko zaie -federazioetan elkartuta ere aurkez daitezke-, Araban edo Trebiñuko Enklabean eduki gabe egoitza soziala, Araban edo Trebiñuko Enklabean badute ordezkartza.

c) Ehuneko 30 kirol federazio, kirol federazioen elkarte, ikasleen gurasoen elkarte eta ikasleen gurasoen elkarten federazioentzat izango da, Araban badute haien egoitza soziala.

Esleitzeko dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoak ezin izango ditu gainditu eranskin honen zazpigarren apartatuan berariaz zehaztutako ehunekoak, eta inola ere ez da izango 10.000 euro baino gehiago elkarte edo erakunde bakoitzeko.

a) b) eta c) apartatuetako programei eman beharreko dirulaguntzak kalkulatu eta gero horietakoren batean soberakina badago, balioespen batzordeak proposatu ahal izango du soberakin hori hainbanaketa handiagoa duen apartatura bideratzea.

Hirugarrena. Erakunde onuradunak eta baztertuak

Entitate onuradun izango dira:

1. Irabazteko xederik gabeko kultura elkarte eta entitate publiko nahiz pribatuak, Araban edo Trebiñuko Enklabearen badute egoitza soziala edo ordezkariak; federazioetan elkartuta ere aurkez daitezke.

2. Kirol federazioak eta kirol federazioen elkarteak, egoitza soziala Araban badute.

3. Ikasleen gurasoen elkarteak eta ikasleen gurasoen elkarleen federazioak, Araban badute haien egoitza soziala.

Deialditik kanpo geratzen dira honako hauek, Diputatu Nagusiaren Sailak norgehiagoka bidez emango dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onetsi zituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren eranskineko hirugarren oinarrian kanpo utzitakoez gain:

a) Kuadrillak, udalak, administrazio batzarrak, udal institutuak eta haietan sartuta edo haiei eratzikita dauden talde eta elkarteak.

b) Ganberak, kooperatibak, elkargoak, sindikatuak edo, oro har, merkatari, teknikari, langile eta profesional elkarteak, guraso elkarteak eta horiei eratzikitako, horietan sartutako edo horietatik sortutako talde eta elkarteak.

c) Elkarteak, taldeak eta antzekoak, beren estatutuetan jasotako xede edo helburuen artean lehentasunik ez badute kultura edo kirol izaerako edo euskararen erabilera sustatzeko jarduerak, eta burutzen dituzten programak ez badira ildo horretakoak.

Laugarrena. Diruz lagundu daitezkeen programak

1. Diruz lagundu ahal izango dira 2020ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartean gauzatzen diren euskararen bidez sozializatzeko programak.

Euskararen bidez sozializatzeko programak dira ezaugarri hauetakoren bat dutenak:

a) Hiztunak aktibatzea, eta, horretarako, euskarazko interakzio sozialerako neurri eta prozedura berariazkoak aurreikustea.

b) Interakzio soziala euskaraz egitea.

c) Funtsezkoa euskararen erabilera sustatzea izatea.

Programek, haien jarduera eta prozeduren bitartez diruz laguntzeko modukoak izango badira, euskara komunikazio ibilgailu izanik pertsonen gizarte interakzioa izan behar dute xede espezifikoa eta nabarmena, aurrez aurre edo modu digitalean.

2. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira lagundutako programaren zuzeneko gastuak.

Halaber, diruz lagungarriak izango dira hiztunak aktibatzerako bideratutako programak (Euskaraldia, TELP, Eusle, Zergatik ez...). Hiztunak aktibatzerako bideratutako programak transmisio esparrutzat hartuko dira.

Diruz lagungarriak izango dira web orriak euskaratzeak eragindako gastuak.

Kanpoan geratzen dira euskara ikastaroen gastuak.

Mintzalagun, berbalagun eta antzeko programetan, zeinetan hainbat lagun aisialdian elkartzen baitira, aldiro eta era programatuan, euskarazko mintzapraktika informala sendotzeko,

koordinazio gastuak osorik izango dira diruz laguntzeko moduko, hots, ehuneko 100 lagunduko dira.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari edo justifikatzeari dago-kienez, gastu hauek:

- a) Euskaraz egin arren, euskararen bitartez sozializatzeko prozedurak jasotzen ez dituzten programak.
- b) Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.
- c) Ordezkaritza, protokolo, oturuntza eta opari gastuak, eta antzekoak.
- d) Inbertsio gastu direnak.
- e) Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu badaitezke (BEZaren kuota kengarria).

3. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 29.3 artiku- luan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratazioak arautzen dituen araudian kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino (hau da, zenbatekoa 15.000 euro edo gehiago bada BEZik gabe hornidura eta zerbitzu kontratuetan; eta 40.000 euro edo gehiago bada BEZik gabe obra kontratuetan), erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru hornitzaileari, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Jasotako eskaintzak dirulaguntzaren zuriketean edo, hala badagokio, dirulaguntzaren es-kaeran aurkeztu beharko dira. Jasotakoen artean, hautapena egin beharko da eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz, eta aukeratutako eskaintza merkeena ez denean, egindako aukeraren zergatia berariaz arrazoitu beharko da dirulaguntzaren memorian.

4. Dirulaguntza jasotzen duen entitateak hizkuntzaren erabilera ez sexista bermatu behar du jaulkitako agiri guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez. Aipatutako legeari jarraituz, argitaratzen diren irudietan ezingo dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa, estereotipo sexistak saihestuko dira eta bultzatuko da dibertsifikazio sexuala, roletakoa eta genero identitateetakoa.

5. SARS-COV-2 koronabirusak eragindako egoera dela medio, eta ezin denez jakin etor- kizunean zer egoera izango dugun, dirulaguntza deialdi honen bidez diruz lagun daitezkeen programak eta jarduerak aldatu ahal izango dira gauzatze epea bukatu aurretik, une bakoitzean hartu beharreko neurrien arabera. Halakoetan, erakunde onuradunak eskaera bidali beharko dio Euskara Zerbitzuari, eta hark aldaketarekin ados dagoela adieraz dezake, betiere hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez baditu.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldake- tak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu. Desbideratze horiek Euskara Zerbitzuaren oniritzia izan beharko dute. Aldaketa horiek justifikatuak izan behar dira, ezin dute inolaz ere funtsezko aldaketarik eragin proiektuan eta diruz lagungarri diren gastuei buruz ezarritakoa bete beharko dute.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak diputatu nagusiari zuzendu behar zaizkio, I. eranskinean argitaratzen den ere- duari jarraikiz.

2. Eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Administrazio agiriak.

- Eskaera, I. eranskinaren arabera.
- Eskaera sinatzen duenaren NANA.
- Elkarte edo erakunde onuradunaren ordezkartzan diharduela egiaztatzen duen agiria.
- Erakundearen estatutuak eta elkarrekin eta entitateen erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duten agiriak. Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzan aurretik aurkeztuta zituzten erakundeek ez dute zertan berriro aurkeztu, salbu eta aldaketaren bat egin badute gerora.
- Eskaera aurkeztu baino lehen erakundea identifikatzeko daturik aurkeztu ez bada, pertsona baimenduak sinatutako agiri bakar batean bildutako datu hauek aurkeztuko dira, erakundeari alta emateko edo kontabilitateko hirugarrenen fitxategian datuak eguneratzeko:
 - Sozietatearen egungo helbidea, telefonoa, faxa edo posta elektronikoa.
 - Banku kontuaren zenbakia, hogen digituekin eta IBANarekin.
 - Identifikazio fiskaleko txartela (IFZ).
 - Aisialdiko programetarako (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak edo horien antzekoak), zinpeko adierazpena, non konpromisoa hartuko baita programaren ardura duten langileetatik gutxienez ehuneko 50ek euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat bederen eginda izateko.
 - Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.
- Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera onuraduna izateko debekurik ez duelako ziurtagiria, pertsona edo erakundeena, lekukotza judizialez edo egiaztatzeko ziurtagiriz egin ahal izango da, kasuan-kasuan. Hala ere, agiri horiek egiterik ez badago, erakunde eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da.

b) Berriazko agiriak, II. eranskinaren arabera.

- Programa bakoitzaren deskribapena:
 - Programaren eta haren ekintzen helburua eta azalpena.
 - Norentzat den (helduentzat, gurasoentzat, gazteentzat, familientzat, umeentzat, denentzat oro har...).
 - Aurreikusten den parte hartzaile kopurua.
 - Berdintasunarekin eta kultura aniztasunarekin zerikusi zuzena duten ekintzak, halakorik badago.
 - Metodologia eta euskararen bitartez sozializatzeko neurriak.
 - Eremuak: 1- Gizarte erabilera (aisia eta kirola). Hiztun berriak (transmisioa). 2- Gizarte erabilera (administrazioa, gizarte eta ekonomia, komunikabideak eta ingurune digitala, kultura). 3- Hiztun berriak (helduen euskalduntzea).
 - Programaren gastu eta diru sarreraren aurrekontu xehatua. Diru sarreraren atalean zehaztu behar dira beste administrazio batzuei eskatutako dirulaguntzak, entitatearen ekarpena, Euskararen Foru Zerbitzuari eskatutako zenbatekoa eta bestelako diru sarrerak, halakorik badago.
3. Erakunde eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu beharko du, Gobernu Kontseiluaren otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz (ALHAO, 23. zk., 1997ko otsailaren

26koa). Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko.

Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen Foru Arauak 21.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, pertsona onuradunak eskaera aurkeztuz gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

Salbuespenez, baldin organo izapidegileak ezin baditu lortu aurreko apartatuetan adierazitako agiriak, interesdunari berriz ere aurkezteko eskatu ahalko dio.

4. Agiriak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoren bidez (erregistro elektronikoko komuna) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 16.4. artikuluan ezarritako organoen erregistro elektronikotan.

Ematen diren kopiek balioa izango dute dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko bakarrik. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 28.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

5. Eskabidean edo horrekin batera aurkezten diren agirietan akatsik egongo balitz edo osorik bete gabe egongo balira, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

Seigarrena. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hogeit egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozedura bideratzea eta balioespen irizpideak

1. Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak izango du espedientea izapidetzeko eskumena.

2. Balioespen irizpideak.

Hartzaileak euskararen bitartez sozializatzea da helburua. Hortaz, irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Hartzaileak.

Gehienez, 15 puntu.

– Gazteak edo nerabeak: 15

– Umeak eta gurasoak, familian etorriak: 10

– Helduak, jendea oro har: 5

b) Zeharkakotasuna.

Gehienez, 10 puntu.

– Genero berdintasuna sustatzen duten ekintzak garatzea: 5

– Kultura-artekotasuna sustatzen duten ekintzak garatzea: 5

c) Programaren intentsitatea.

Gehienez, 15 puntu.

– Intentsitate handiko programa (jarraitua, sarri egiten dena, ez noizbehinka): 15

– Intentsitate gutxiko programa (jarraipenik gabe, noizbehinka egiten dena): 5

d) Sozializazio maila.

Gehienez, 15 puntu.

– Taldeka: 15

– Bakarka: 5

e) Euskararen erabilera.

Gehienez, 40 puntu.

– Hitzunak aktibatze berariazko neurriak ezartzea: 40

– Hitzunen elkarreragin soziala: 20

– Euskararen sustapena: 10

f) Lurralde oreka.

Gehienez, 5 puntu.

– Lurraldekoak bai baina Gasteizkoak ez diren erakundeak: 5

– Gasteizko erakundeak: 0

Irizpide bakoitzari dagozkion puntuen batuketak guztirako kopuru bat izango du emaitza, eta eskala honetara ekarrita, emaitza horren arabera gehieneko dirulaguntza adieraziko du, dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontua oinarritzat hartuta.

PUNTU KOPURUA	DIRU LAGUNTZAREN EHUENKOA, GEHIENEZ
0 - 30 puntu	0
31 - 40 puntu	40
41 - 50 puntu	50
51 - 65 puntu	60
66 - 80 puntu	70
81 - 100 puntu	80

Ateratzen diren zenbatekoen baturak deialdiaren diru dotazioa gainditzen badu, jaso beharreko zenbatekoak hainbanatu egingo dira, arestian deskribatutako eskalan ezarritako ehunekoen proportzioan, deialdiaren aurrekontu baliabideetara egokitzeko.

Zortzigarrena. Dirulaguntzari uko egitea eta ukapen hori jakinaraztea

Diruz lagundutako programaren bat egiteari uko egitea erabaki duten laguntzen erakunde onuradunek, hartarako dituzten arrazoiak gorabehera, lehenbailehen jakinaraziko dute hari uko egiten diotela, alegia, dakiten bezain laster.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira aurreko apartatuan adierazitako ukapenak (Probintzia plaza, z.g.); edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua xedatutako eraren batean.

Bederatzigarrena. Ebazpena

1. Euskararen Foru Zerbitzua izango da prozedura bideratzeko organo eskuduna.

2. Balioespen batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde horren lehendakaria Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria izango da, eta honako hauek batzordekide: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua eta Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrek Atenditzeko Zerbitzuaren burua izango da idazkaria, eta hark hitza izango du, baina ez botorik.

Diputatu Nagusiaren Sailak, egoki deritzen kasuetan, aukeran izango du aurkeztutako agiriari buruzko datuak eta azalpenak eskatzea. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, datu edo azalpen horiek ez badira bideratzen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen dituen epeetan.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

4. Organo eskudunak, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena ikusita, bidezko den ebazpena hartuko du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde onuradunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

5. Hainbanaketa egitearen ondorioz dirulaguntza murrizten den kasuetan, eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 25. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuradunari eskatu ahal izango zaio bere eskaera berriro formulatu dezala, konpromisoak eta baldintzak eman ahal zaion dirulaguntzara egokitzeko.

6. Ebazpenean, positiboa izanez gero, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta zenbatekoa emateko baldintzak ere. Halaber, berariaz jasoko da gainerako eskaerak ezetsi egin direla eta ezespenearen arrazoia adieraziko da.

7. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

8. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurka ez egitekotan, nahi izanez gero errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena hartu zuen organo berari, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.

Hamargarrena. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

1. Ordainketa era honetan egingo da:

— Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 60, justifikatu beharreko aurrerakin moduan, esandako ebazpenaren datatik aurrera ordainduko da.

— Gainerakoa ordainketa bakarrean ordainduko da, egindako gastuak, behar bezala zerrendaturik aurkezten direla, justifikatu ondoren, azken ordainketa horretan, aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina"ren kenkaria eginda; gastu guztiak justifikatzeko agiriak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 30ean amaituko da.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

2021eko otsailaren 22rako aurkeztu beharko dira, beranduenez, dirulaguntza justifikatzeko gastuak ordaindu izana egiaztatzekeo agiriak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, erakunde onuradunek berariaz aurkakorik adierazi ezean, organo izapidegileak honako hauek eskatuko ditu: aurkeztutako hiruhileko 110 ereduak, PFEZren atxikipenak eta konturako sarrerak, horien ordainketaren egiaztapena, eta 190 ereduak, eta atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena. Erakunde onuradunak ez ditu zertan aurkeztu. Kontsulta horri espresuki uko eginez gero, erakunde onuradunak agiri horiek aurkeztu beharko ditu justifikazioan.

2. Gastuak justifikatzeko, erakunde onuradunek justifikazio kontu erraztua aurkeztuko dute, zeina arautzen baitute Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 28.1 eta 2 artikuluetan eta Diputatu Nagusiaren Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onesten dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak eranskineko 6. oinarrian, eta, horretarako, eskatutako programa bakoitzeko, nahitaez bete beharko dute IV. eranskina.

IV. eranskinaz gain, hauek osatuko dute justifikazio kontu erraztua:

– Jardueren memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituena (III. eranskina).

– Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

– Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren gerakinen kasuan; bai eta haietatik eratorritako interesena ere.

Bakar-bakarrik aurkeztu beharko dira fakturak edo agiri baliokideak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 1.000 euro gainditzen badute (BEZa aparte), eta haiek ordaindu izanaren frogagiriak.

Organo izapidegileak egokitzen dituen dokumentu, argibide, froga-agiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate onuradunei, dirulaguntza dagokion xederako ez besterako erabili izanaren arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiritik:

- Jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Hartzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZa.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

Ez dira onartuko justifikazio gastu gisa PFEZeko (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko zerga araudia betetzen ez duten faktura eta ordainagiriak, ez eta fakturazio betebeharrei buruzko araudia betetzen ez dutenak ere.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.
- Bankuko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna.
- Fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Kontu korronteen libretak, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.
- Erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gunek eta autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar).

Faktura jaulkitzerik ez duten gastuei dagokienez, gastua justifikatzen duten froga balioko agiriak.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. Jasandako BEZeko kuotak diruz laguntzeko moduko gastu moduan konputatzeari begira, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ebazpena edo zerga egoitza daukaten lurraldeko zerga administrazioarena aurkeztu beharko dute, zeinean BEZaren Foru Arauaren 20.hiru artikuluan aurreikusten den entitatearen izaera soziala aitortzen zaion, arau horren 20.bat artikuluko 12. eta 14. apartatuetan jasotzen den zergaren salbuespena aplikatzeari begira.

4. Mintzalagun, berbalagun edo horien antzeko beste programen kasuan, 2. puntuan zehaztutako agiriez gain, beste hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Gastuen taula bat eta entitate onuradunaren ordezkari gisa diharduenaren idazki bat, V. eranskinaren arabera, zeinak ziurtatuko baitu atxikita izan dituen langileak, horien dedikazioa eta kostua; langileak zuzenean kontratatatu badira, jatorrizko nominak eta Gizarte Segurantzako TCak aurkeztu behar dira; zerbitzua beste entitate bati azpikontratatu bazaio, haren faktura/k.
- Programako parte-hartzaileen izen zerrenda, pertsona eta talde kopurua, guztira, eta programaren iraupena.

5. Aisialdi programetan (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak eta antzekoak), bigarren puntuan zerrendatzen diren agiriez gain, beste hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Programa gauzatuko duen erakundearen memoria, non zehazten den zer mailatan lortu duen programak euskararen bitartez sozializatzea.
- Egiaztagiria, ziurtatuz aisialdi programaren arduraren duen monitoreak, gutxienez, euskaraz ikasi duela Batxilergoa, edo egiaztatu duela B2 maila, hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuaren arabera, edo baliokidea.
- Frogagiriak, frogatuz ezen programaren arduraren duen langileen artean ehuneko 50ek bederen eginga duela euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat gutxienez.
- Elkartearen lehendakariaren ziurtagiria, aisialdi zerbitzua emateko kontratatatu diren monitoreen izen-abizenak adierazten dituenak.

6. Egiaztagiriak elektronikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (erregistro elektronikoa komuna) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 16.4. artikuluan ezarritako organoen erregistro elektronikoetan.

Ematen diren kopiek balioa izango dute dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko bakarrik. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 28.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agirien egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

Hamaikagarrena. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Emandako dirulaguntzak bateragarriak dira nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez badu gainditzen diruz lagundutako programaren edo programen kostua.


Erakunde onuradunak jakinarazi egingo dio organo esleitzailari helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskuratu duenez edo eskuratzeko eskaerarik egin duenez, estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikok emanik edo edozein entitate edo erakunde pribatuk emanik.

Hamabigarrena. Publizitatea

Honako deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahaleginak egingo dira hedabideetan ahalik eta zabalkunde handiena izan dezan.

Era berean, eranskinak digitalki eskura daitezke www.araba.eus web orrian edo beste honetan: www.euskaraba.eus.

Euskararen Foru Zerbitzuak www.euskaraba.eus web orrian argitaratu ahal izango du diruz lagundutako programa edo jarduera.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Euskaraz sozializatzeko irabazi asmorik gabeko elkarte, guraso elkarte eta kirol federazioen diru-laguntzaren eskaera orria. (I. eranskina)</p> <p>2020</p> <p>Solicitud de subvención de Asociaciones sin ánimo de lucro, asociaciones de madres y padres de alumnas/os, y federaciones deportivas para desarrollar programas de socialización a través del euskera. (Anexo I)</p>
	<p>Diputatu Nagusiaren Saila Departamento de Diputado General</p>

Eskaera zk. ■ Nº Solicitud Eskaera data ■ Fecha Solicitud

--	--

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

IKZ ■ CIF

Identifikazio zk. ■ Nº identificativo

[]

Sozietatearen izena ■ Razón social

[]

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

[]

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

[]

[]

[]

[]

[]

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

[]

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

[]

[]

[]

JAKINARAZPENAK ■ NOTIFICACIONES


Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpen elektronikoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzaileek egoitza elektroniko horretako "nire jakinarazpenak" atalean eskuratu ahal izango dituzte.

